

## En defensa del Estado de Derecho, NUNCA la tortura 26 de junio de 2008

En demasiadas ocasiones, la denuncia de existencia de torturas e, incluso, la reclamación de investigación de casos en los que hay indicios de comisión del delito de la tortura, son interpretadas como graves acusaciones hacia las fuerzas de seguridad del estado en su totalidad o como afirmaciones de un incorrecto funcionamiento del Estado de Derecho en general. Esta interpretación es equivocada. Desde Gesto por la Paz, precisamente en defensa del Estado de Derecho y reconociendo la labor que realizan las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado en defensa de los derechos y libertades de los ciudadanos y en su lucha contra el terrorismo, reclamamos:

1. Que se tomen cuantas medidas sean necesarias en orden a prevenir la comisión del delito de tortura, eliminando todos los espacios de impunidad.
2. Que, cuando haya una denuncia, se investigue y se pongan los medios necesarios para esclarecer lo ocurrido. Desde el poder ejecutivo y desde los partidos políticos se debe mantener una verdadera voluntad política contraria a la tortura y nunca mantener posicionamientos contextualizadores o exculpatorios ante un delito que ensucia y pervierte el Estado de Derecho y vulnera Derechos Humanos fundamentales.
3. Que sean investigados todos aquellos casos en los que haya indicios de haberse cometido un caso de tortura contra una persona detenida. Y que dichas investigaciones garanticen la realización de un procedimiento judicial justo. En todos los casos los ciudadanos deberíamos conocer el resultado de dichas investigaciones para que no nos quede la duda sobre la certeza o la falsedad de ninguna denuncia.
4. Y, finalmente, que las penas impuestas a los culpables, sean cumplidas atendiendo a los mismos criterios que en otros casos y que tengan los efectos pedagógicos imprescindibles para disuadir sobre la comisión de este delito. Por otra parte, dado que se trata un delito de abuso del poder legítimo que ostenta el Estado, las personas condenadas queden inhabilitadas para realizar trabajos que tengan relación con el delito cometido.

Hoy, es el *Día Internacional de Solidaridad con las víctimas de la tortura*. No podemos olvidar que la tortura es una violación de los derechos humanos especialmente grave, en la medida en que quien la padece está indefensa en manos de quienes debieran detentar el uso legítimo de la violencia. Creemos que ésta no es una práctica sistemática en los centros de detención, pero no podemos obviar informes de organizaciones como Amnistía Internacional o recomendaciones de altos cargos europeos y de la ONU que son continuamente desatendidos, informes y recomendaciones que nos hacen estar alerta y presentar las reclamaciones expuestas. La actuación del Estado debe ser transparente, de tal manera que entre la ciudadanía no quede ninguna duda respecto a su firme posición en contra de la tortura. Los ciudadanos deberíamos tener la plena seguridad de que nuestras Instituciones llevan a cabo sus funciones desde el escrupuloso respeto a los Derechos Humanos.

No podemos olvidar que como fruto de abusos policiales en España han perdido la vida seres humanos y, precisamente, su recuerdo tiene que ser una de las razones para reclamar prevenciones hacia este delito. Tampoco podemos olvidar que personas condenadas por casos de tortura, no sólo han cumplido penas ridículas, sino que incluso en demasiados casos son indultadas sin un –desde nuestro punto de vista- necesario reconocimiento del daño causado, dejando entrever que el Estado resta gravedad a este tipo de delitos e incumple con su obligación de terminar de manera radical con la tortura.

Por todo ello, y porque en nuestro ánimo está el deseo y la firme convicción de fortalecer el Estado de Derecho, reivindicamos que “en defensa del Estado de Derecho, NUNCA la tortura”.

## Zuzenbidezko estatuaren alde, tortura INOIZ EZ 2008.eko ekainaren 26a

Sarriegitan, torturak salatzen direnean edo torturaren delitua egin deneko zantzuak dauden kasuak ikertzeko eskatzen denean, estatuko segurtasun indar guztien aurkako salaketa larriak egiten direla edo, orokorrean, Zuzenbidezko estatuaren funtzionamendua eskasa dela baieztatzen dela ulertzen da. Eta interpretazio hori okerrekoa da. Bakearen aldeko Koordinakundetik, Zuzenbidezko estatuaren defentsan eta Estatuko segurtasun indar eta taldeek herritarren eskubide eta askatasunen defentsan eta terrorismoaren aurkako borrokan egiten duten lana aitortuz hain zuzen ere, zera eskatzen dugu:

5. Beharrezko neurri guztiak har daitezela, torturaren deliturik ez egiteko, zigorgabetasun esparru guztiak desagerraraziz.
6. Salaketaren bat dagoenean, ikertu eta beharrezko neurriak jar daitezela gertatutakoa argitzeko. Botere exekutiboak eta alderdi politikoek torturaren aurkako borondate politiko sendoa erakutsi behar dute eta ez mantendu inoiz ere hala-holako testuinguruan kokatutako jarrerarik, ez errua arintzekorik, oinarritzko Giza Eskubideak urratu eta Zuzenbide estatua gaiztotu eta lohitu egiten duen delitu baten aurrean.
7. Atxiloturen baten aurkako torturaren bat egin deneko zantzuak dauden kasu guztiak iker daitezela. Eta ikerketa horiek jardunbide judizial zuzena gauzatzea berma dezatela. Kasu guztietan, herritarrok ikerketa horien emaitzak ezagutu beharko genituzke, salaketa bakar batean ere ez dezagun zalantzarik izan bere ziurtasun edo faltsutasunari dagokionez.
8. Eta, azkenik, errudunei ezarritako zigorrak beste kasu batzuetan erabilitako irizpideen arabera bete daitezela eta ezinbesteko eragin pedagogikoak izan ditzatela delitu hori berriro ez egiteko. Beste alde batetik, Estatuak nabarmenkeriaz erakusten duen botere gehiegikeriazko delitua denez, kondenatutakoak egindako delituarekin zerikusia duten lanak egiteko gaitasunik gabe gera daitezela.

Gaur, *Torturaren Biktimekiko Elkartasunerako Nazioarteko Eguna* da. Tortura, ezin dugu ahaztu, giza eskubideen bortxaketa bereziki larria da, jasaten duena babesik gabe dagoelako indarkeriaren erabilera legitimoa bidegabeki eduki beharko luketenen eskuetan. Gure ustez, tortura ez da jarduera sistematikoa atxilotze zentroetan, baina ezin ditugu alde batera utzi 'Amnistia Internacional' bezalako erakundeek txostenak edo inolako arretarik eskaintzen ez zaien europar eta NBEko goi karguen aholkuak, txosten eta aholku hauek adi egoteko eta jasotako erreklamazioak aurkezteko sustagarri egoki direlako. Estatuaren jarduerak gardena izan behar du, horrela, herritarrek ez dezaten inolako zalantzarik izan torturaren aurkako haren jarrera finkoan. Herritarrok ziurtasun hau izan beharko genuke: gure erakundeek Giza Eskubideak zehatz-mehatz errespetatuz betetzen dituztela beren eginkizunak.

Ezin dugu ahaztu, Espainian, polizien gehiegikerien eraginez gizakiak hil egin direla eta, hain zuzen ere, haien oroipenak bultzatu behar gaitu delitu honen aurrean

prebentzioak eskatzera. Ezin dugu ahaztu, ezta ere, tortura kasuengatik kondenatutako pertsona batzuek zigor barregarriak bete dituztela eta, kasu larregitan, indultatuak ere izan direla –gure ikuspuntutik- eragin duten kaltea aitortu gabe. Horrek zera erakusten du: Estatuak ez diela behar adina larritasun egozten honako delituei eta ez duela betetzen tortura erabat desagerrarazteko premia.

Eta gure nahia Zuzenbidezko estatua sendotzea delako, “zuzenbidezko estatuaren alde, tortura INOIZ ERE EZ” aldarrikatzen dugu.